

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

109/2020 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa. Onestea irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez kirol egokitua egiteko 2020rako dirulaguntza deialdia

Kultura eta Kirol Sailak asmoa du 2020an diruz laguntzeko Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeko irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez egiten diren kirol egokituko jarduerak.

Horretarako, nahitaezkoa da kirol egokituko jarduerak bete beharreko araudia zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2020ko dirulaguntza deialdia onestea Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabeko irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez kirol egokitua egiteko. Deialdia, gehienez, hogeita hamar mila euroz (30.000,00 euro) egongo da hornituta, eta honako hauek arautuko dute: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAOren 134. zenbakian argitaratuta), onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri-arau orokorrak, eta foru agindu honen eranskinean jasotzen diren berariazko oinarriak.

Bigarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2020rako ekitaldiko gastuen aurrekontuko honako partida honen kontura ordainduko da: 70.2.01.77.01.481.00.04 Kirol egokituko elkarteentzako laguntza, 70-133 lerroa, 105-2099 xedapen erreferentzia.

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du dagokion ebazpena, Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertuta; lau hilabeteko epea du ebazpena emateko, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean egin dakioko aurka administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 15a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
PABLO DE ORAÁ OLEAGA

Eranskina**2020ko urtarrilaren 1a eta irailaren 30a artean, irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez kirol egokitua egiteko dirulaguntza deialdia****Lehenengoa. Helburua eta xedea**

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, 2020ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Enklabean kirol egokituko jarduerak eta programak antolatzeak eta gauzatzeak eragingo dituen gastuak finantzatzen laguntzeko. Hori guztia, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzen oinarri-arau orokorrak onartu zituenean, xedatutakoa kontuan hartuta egingo da.

Kirol egokituzat jotzen dira pertsona taldeen eta dibertsitate funtzionaleko taldeen artean ariketa fisikoak eta kirol ariketak sustatzea helburu duten jarduerak eta lehiaketa jarduerak baldintza jakinetan.

Jarduerak lehiaketako, mantentze fisikoko eta antzeko beste batzuk izan ahalko dira.

Dirulaguntza horiek ekarpenak dira, beste erakunde publiko zein pribatu batzuen ekarpenekin batera jarduera horiek egitea erraztu nahi dutenak.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Ematen diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezin daiteke 30.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastu aurrekontuko "Kirol egokituko elkarteentzako laguntza" izeneko 70.2.01.77.01.481.00.04 partidaren kontura ordainduko da.

Hirugarrena. Elkarte eta erakunde onuradunak eta baztertuak

Erakunde hauek izan daitezke onuradunak:

Egoitza Araban duten irabazteko xederik gabeko erakundeak, baldin eta dagokien Arabako federazioan edo Eusko Jaurlaritzaren elkarteen erregistro egokian izena emana badute. Salbuespenez, Trebiñuko Enklabean egoitza izanik beren autonomia erkidegoko elkarte erregistroan arauz erregistratutako erakundeak.

Ez dira onuradun izango, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituena, hirugarren oinarrian jasotako bazterte egoeretan dauden erakundeak.

Esprezki deialdi honetatik kanpo gelditzen dira:

– Arabako Foru Aldundiaren 2020rako Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan partida izenduna duten erakundeak, diru-laguntzaren xedearekin bat badatoz.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

Batez ere jarduera hauek lagunduko dira diruz:

- Talde eta parte hartzaile berriak erakartzeko asmoa dutenak.
- Kirol mota edo espezialitate berri bat ezartzeko asmoa dutenak.
- Dauden kirol mota edo espezialitateak indartzeko edo horiek teknikoki hobetzeko asmoa dutenak.
- Kiroleko mantentze fisikoko jarduerak bultzatzen dituztenak.
- Lehiaketa-jardueretan parte hartzeko antolatzen direnak.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak honela aurkez daitezke:

– Eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo itundutako udalen erregistro orokorretan.

– Edo elektronikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez sar daitekeen erregistro elektronikoan.

Nolanahi ere, Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

2. Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidaliko zaizkio eskaerak, l. eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera.

3. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dokumentazio administratiboa:

1. Eskaera sinatzen duen ordezkariaren NANaren fotokopia aurkeztuko da.

2. Elkartea edo entitate eskatzailearen ordezkariaren diharduela egiaztatzen duen agiria.

3. BEZetik salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (aldez aurretik aurkeztu ez baldin bada) edo erakundeko lehendakari kargua doakoa dela adierazten duen aitortpena.

4. Erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero edo hirugarrenen kontabilitate fitxategian dauden datuak eguneratu behar izanez gero, honako datu hauek aurkeztuko dira:

– Bankuko kontuaren zenbakia, IBAN kodearekin. Agiri horrek banku erakundearen zigilua izan behar du, bankuko kontu zenbakia erakunde eskatzailearena dela egiaztatzeko.

– Identifikazio fiskaleko txartelaren (IFZa) fotokopia. Erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

b) Dokumentazio espezifikoa, l. eranskineko 4.,5. eta 6. orriak, adierazita:

– Gauzatuko den/diren jarduera motak, jarduera egingo den instalazioa, datak, parte hartzaileen kopurua (16 urte baino gehiago), jardueraren datak, egunak eta ordutegia.

– Jardueraren gastu eta diru sarreren aurrekontua. Horrez gain, erakunde edo entitate publiko edo pribatuei egindako laguntza eskaerak eta entitatearen beraren ekarpenak adierazi behar dira.

– Erakunde eskatzailearen lan eta zerga egoerari buruzko datuak.

– Oharrak eta eskaera aurkezten duen erakunde eskatzaileak hartzen dituen konpromisoak.

4. Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, egiaztatu beharko du bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundearen egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrak dagokienez, erakunde onuradunek Araban badute sozietatearen egoitza, nahikoa izango da egunean dituztela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

5. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, beren-beregi, memoria batean.

Eskaerek adierazitako betekizunak betetzen ez badituzte, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

6. Erakundeek eskaera bakarra egin ahalko dute, oinarri hauetako laugarrenean xedatutakoaren arabera.

7. Jarduera bererako erakunde sustatzaile edo antolatzaileak eta erakunde parte-hartzaileak, biek, eskaera aurkezten badute, erakunde antolatzaileak egindakoa baino ez da kontuan hartuko.

Seigarrena. Aurkezteko epea

Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

Laguntzen zenbatekoa ezartzeko, eskaeran emandako datuak balioetsiko dira (eskaera orria), puntuazio baremoan jasotzen diren irizpide hauen arabera:

1. Gastu konputagarrien aurrekontua.

Atal honetako puntuak kalkulatzeko orduan, konputatu beharreko gastuak dira ondoren adierazten diren kontzeptuengatik eta gehienezko ehunekoengatik diruz lagundutako jardueri egotzi dakizkiekeenak:

a) Arbitroak, joan etorriak barne.

b) Hauexen gastuak: kirol entrenatzaileak, monitoreak, laguntzaileak eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren gainerako langileak.

c) Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira (erakunde eskatzaileak berariaz kontratatutako pertsonak ere bai); beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

d) Kanona, trafikoko tasak eta aplikagarri diren gainerako tasak, abalak ez.

e) Medikua, mediku azterketa, anbulantzia, salbamendu, albaitari, ferratzaile, irrati lotura, dopin kontrol eta abarren gastuak, probarako beren-beregi kontratatutakoak.

f) Edonola, fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira (eskaera egin duen entitateak kontratatu dituen personas barne); beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

g) Jardueran parte hartzen dutenen (jokalariak, entrenatzaileak eta ordezkariak) joan-etorriak, talde garraioan. Joan-etorrietatik kanpo geratzen dira kirol egokitua egiten ez duten kirolariak, zuzendariak, senideak eta publikoak, oro har.

h) Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, desgaitasun funtzionala duten pertsonen dagokien gastu osoaren ehuneko, talde osoa kontuan hartuta.

i) Federazio lizentzien tasak, federazioan izena emateko kanona edo tasak, bai eta lehiaketa federatuetan izena emateko kanona edo tasak ere.

j) Jarduerarako behar den eta hari egotzi ahal zaion material suntsikorra eta erregaia alokatu edo erostea.

k) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material, ekipo eta instalazioen alokairu gastuak.

l) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material ez suntsikorra alokatu edo eskuratzea.

2. Honako gastu hauek ez dira gastu konputagarriak izango, puntuazio baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko; aldiz, konputagarriak izango dira jardueraren guztirako gastuak zenbatzeko:

a) Parte hartzaileen, epaileen, zuzendarien eta abarren dietak, ostatu eta mantenu gastuak (otorduak, lunchak eta antzeko gainerakoak). Bai, ordea, probarako hornidura.

b) Jarduerarako aseguru orokorra edo berariazkoa.

c) Entrenamendu edo lehiaketa ekipazioak, hala nola elastikoak, kulotak, izerditakoak, txandalak, bainujantziak, kimonoak eta antzeko materialak, eta erabilera pertsonaleko materiala, hala nola barrabil babeskiak, hortz babesak, betaurrekoak, puntak, kaskoak eta antzekoak.

d) Parte hartzaileentzako opariak (loreak, elastikoak, izerditakoak, dominak, oroigarriak eta antzeko beste material batzuk, eta fotolitoak eta haiek inprimatzea edo grabatzea ere.

e) Ordezkaritza, protokolo eta antzeko gastuak.

f) Kirolariak kontratatzea (ordainsariak, dietak eta antzeko gastuak).

g) Instalazioen mantentze lanak egiteko dietak edo ordainsariak.

h) Materiala garraiatzea eta muntatzea.

i) Joan-etorriak: lehiaketa ofizialeko jardueretarako. Ez dira kontuan hartuko kirolarien, entrenatzaileen eta ordezkarien joan-etorriak, jardueran sartzen ez direnak, zuzendarien, senideen eta publiko orokorraren joan-etorriak. Gainerako eskaera eta/edo jardueretarako, ez da joan-etorriak egingo.

j) Jarduera gauzatuko den instalazioetan beharrezko diren prestatze lanak edo egokitze lanak sortutako gastuak.

k) Megafonia alokatzea eta lokuzioa.

l) Garaikurrak.

m) Kartelak (diseinatzea, inprimatzea, banatzea, fotolitoak eta gainerako inprimatze prozedurak) eta publizitatea komunikabideetan.

n) Parte hartzaileei dirutan edo gauzatan emandako sariak eta haien antzekoak.

o) Ikuztegi gastuak.

p) Antolaketako, zuzendaritza teknikoko eta zuzendarien joan-etorrietarako gastuak.

q) Bulegoko materiala, fotokopiak, informatikako materiala, posta, telefona, web orria sortzea eta zaintzea, eta abar.

r) Kultura edo animazio jarduerak.

s) Instalazioak edo materiala zaintzeko eta kontrolatzeko gastuak.

Zeharkako zergak, berreskuratutako edo konpentsatu ahal badira, inoiz ere ez dira sartuko lagundu daitezkeen gastuetan.

3. Puntuak honako puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 eta 1.000,00 euro bitartean	1
1.000,01 eta 2.000,00 euro bitartean	2
2.000,01 eta 3.000,00 euro bitartean	3
3.000,01 eta 4.000,00 euro bitartean	4
4.000,01 eta 5.000,00 euro bitartean	5
5.000,01 eta 6.000,00 euro bitartean	6
6.000,01 euro eta 7.000,00 euro bitartean	7
7.000,01 euro eta 8.000,00 euro bitartean	8
8.000,01 euro eta 9.000,00 euro bitartean	9
9.000,01 euro eta 10.000,00 euro bitartean	10
10.000,01 eta 11.000,00 euro bitartean	11
11.000,01 eta 12.000,00 euro bitartean	12
12.000,01 eta 13.000,00 euro bitartean	13
13.000,01 eta 14.000,00 euro bitartean	14
14.000,01 euro baino gehiago	15

4. Dirulaguntzak banatzeko puntuazioen sistema erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa eskatzaile guztiek lortutako puntuen artean zatituko da. Horrela puntuaren balioa zein den jakingo dugu. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gainditzen jardueraren gastua.

5. Honako muga hauek ezarriko dira:

– Jardueraren guztirako gastuak ken jardueraren guztirako diru sarrerak, horren emaitzaren muga.

– Eskatzaileak “eskatutako zenbatekoa” laukitxoan adierazitako muga ezarriko da.

– Gastu konputagarrien muga.

– Edonola ere, 10.000,00 euroko muga orokorra ezarriko da.

6. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan jasotakoa, ez da berriaz baimentzen oinarri hauetan jasotako laguntzetarako.

7. 2020. urteari buruz emandako datuen arabera aplikatuko dira dirulaguntzak, eta ezin daitezke inoiz ere argudio izan beste urte batzuetan eskatu ahal izateko.

8. Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Balorazio batzorde horren lehendakaria Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Esleipen ebazpenean zehaztu behar da zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkota eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Erakunde onuradunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte 2020ko urriaren 30era arteko epean:

Memoria-likidazioaren inprimaki normalizatua (II. eranskina), behar bezala beteta, eta gastuen jatorrizko egiaztagirak (gastuen guztizko zenbatekoaren jatorrizko ordainagiri edo fakturak). Aitzitik, 500,00. euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatuta beharko da.

Beharrezkoa da fakturak jatorrizko formatuan aurkeztea; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez igorritakoak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoko bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Gastuaren xedea.
- Data.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak, PFEZaren (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horretan, onartuta egongo da erakundearen izaera soziala, BEZaren Foru Arauaren 20.3 artikuluan aurreikusitakoa, BEZaren Foru Arauaren 20.1 artikuluan 13. paragrafoak jasotzen duen zerga salbuespena aplikatzeko.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren froga agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako edo zigilatutako ziurtagiria, non agertuko diren faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketaren data.

- Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

- Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune, autobide, bidaiak txartel eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigilua jarrita, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen badu, hura berriro kalkulatu beharko da, deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.

Laguntzak justifikatzeko dokumentazioa elektronikoki aurkeztuz gero Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez sar daitekeen erregistro elektronikoen edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako gainerako erregistro elektronikoen, jatorrizko justifikazio agiriak gordailutzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non jasoko baita emandako laguntzaren justifikazio gisa aurkeztutako dokumentazioa (gastu eta ordainketa egiaztariak) bat datorrela erakundearen legezko egoitzan gordailututako jatorrizko dokumentazioarekin. Adierazpen hori erakundearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

Instrukzio organoak, deialdietan erabakitako laginketa tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatu diren jatorrizko gastuen eta ordainketen egiaztariak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

Hamargarrena. Bateriaezintasunak

Dirulaguntzak emateko oinarri-arau orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak izan daitezke Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo horiei atxikitako erakundeetatik jaso daitezkeen dirulaguntzekin.

Hamaikagarrena. Publizitatea


1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
2. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

Hamabigarrena. Erantzukizunak

Deialdiaren xede diren jarduerak erantzukizunak eragiten baditu, onuradunak izango dira erantzule; gainera, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen baimenak eskatu beharko dituzte.

Hamahirugarrena. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpreta-zioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Kirol egokituko jarduerak Eskaera (I. eranskina)</p> <p>2020 Actividades de Deporte Adaptado Solicitud (Anexo I)</p>
--	---

Kultura eta Kirol Saila Departamento de Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N° identificativo				
<input checked="" type="checkbox"/> IFZ ■ NIF		<input type="text"/>				
Sozietatearen izena ■ Razón social						
<input type="text"/>						
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico						
<input type="text"/>						
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax				
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la entidad solicitante)


Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>	

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro	<input type="text"/>	<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre		Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
<input type="text"/>		<input type="text"/>		<input type="text"/>	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico					
<input type="text"/>					
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			

Orria ■ Hoja 1/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Kirol egokituko jarduerak Eskaera (I. eranskina)</p> <p>2020 Actividades de Deporte Adaptado Solicitud (Anexo I)</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	
NAN ■ DNI	
Entitatea ■ Entidad	
IFZ ■ NIF	
Kargua klubean ■ Cargo en el Club	

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)


Sinadura ■ Firma _____

(Klubaren zigilua ■ Sello del Club)

Berariaz baimena ematen dut neure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza ekonomikoko honen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. ■ Expreso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(AURREKO ALDEA)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(ANVERSO)</p>	<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(ATZEKO ALDEA)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(REVERSO)</p>
---	--

Orria ■ Hoja 2/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Kirol egokituko jarduerak Eskaera (I. eranskina)</p> <p>2020 Actividades de Deporte Adaptado Solicitud (Anexo I)</p>
--	--

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte


BANKUKO DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Complimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
